

EGAk C1 2025

Antolamendu arauak

**Honako arautegi hau urtean zehar moldatzen ahalko da,
antolaketa beharrek hala eskatzen badute.**

1) Deialdiak

C1 mailako Euskara Gaitasuna egiaztatzeko azterketak antolatuko dira 2025ean Iparraldean.

C1 maila egiaztatzeko probak, deialdi irekiz, bi azterketa-alditan izanen dira: 2025eko udaberrian eta udazkenean.

2) Nori irekiak: baldintzak

Azterketa hau, bere baitatik edo ikastetxe batean landuz euskara ongi dakien, C1 mailako (EGAk C1) gaitasun-agiria eskuratu nahi duen edozein¹ pertsonari zuzendua zaio, deialdi irekiz, 2025eko abenduaren 31n berantenez 17 urte betetzen dituen unetik; hots 2009ko urtarrilaren 1.a aitzin sortua. Salbuespen bakarra: 2009an sortu baina 2008koen ikasgelan diren azterketariak (ikasturte bat jauzi egin dutenak).

Azterketan parte hartu ahal izateko 35 €-ko saria ordaindu beharko da, deialdi bakoitzeko. Azterketa egunean nortasun agiri bat eta izen-emate agiria aurkeztu beharko ditu azterketariak.

3) Azterketen leku-egunak

2025eko otsailean, EEPko webgunean eta hedabideen bitartez argitaratuko dira urteko Euskara Gaitasun Agirien epe eta kokagunak.

Ahozko azterketarako ordutegi berezia behar balu azterketari batek, izena ematen duen unetik jakinarazi beharko luke, beharrezkoak diren ziurtagiriak emanez. Ahozko azterketarako ordutegi bereziaren beharra berantago jakinen balu, azterketa idatziaren egunean jakinarazi beharko luke berantenez. Ezin izanez gero, urte bereko bigarren ahozkoa zuzenean joateko baimena eskatu beharko luke.

4) Aurkezteko aukerak

Azterketari bakoitza nahi bezainbat aldiz aurkezten ahalko da azterketa bakoitzera, baina deialdi berean ezingo du maila bat baino gehiagotara aurkeztu.

5) Kopien kontsulta

Azterketa gainditu ez duen azterketari batek bere kopia kontsultatu nahi izanez gero, eskaera egin dezake. Batzorde Zientifikoak data bat finkatuko du horretarako, antolaketa-baldintzek hori baimentzen badute.

6) Baliogabetzea

Azterketa denboran tranpa egiten duen edo saiitzen den azterketaria, edo debekatuak diren lagungarriez baliatzen dena, azterketatik kanporatua izanen da eta haren azterketa baliogabetua.

Kanporatze eta baliogabetze erabakia, azterketa eguneko aztertzaile-taldearen esku izanen da.

7) Azterketaren iragan molde zehatza

Azterketa idatziaren iragan moldea: **EGAk C1 Azterketa eredia 2025** dokumentuaren arabera egingen da.

Ahozko azterketaren iragan moldea: **EGAk C1 Azterketa eredia 2025** dokumentuaren arabera egingen da.

Epaimahaiaren osaera eta antolaketari dagokionez:

- Ahozko azterketara aurkezten den orok, bi aztertzailez osatu epaimahai baten aitzinean frogatu beharko du C1 mailari dagokion euskara gaitasuna duela: ahozko adierazpen jarraikia eta elkarreragineko gaitasunak eskuratu dituela.
- Epaimahaikideetako batek (edo aldizka, nahi izanez gero) azterketaren alde tekniko segurtatuko du (izen-deiturak eta oharrak hartzea, minutuen neurketa...), besteak azterketaria galdekatuko duen bitartean.